



EBAZPENA, 2011KO APIRILAREN 14KOA, HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILEKO LANGILERIAREN KUDEAKETA ZUZENDARIARENA. HORREN BIDEZ, 2011-12 IKASTURTERAKO DEIALDIA EGIN DA, LANPOSTUAK ZERBITZU-EGINKIZUNETAN BETETZEKO —HAUR, LEHEN ETA DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAKO IRAKASLEEKIN BETE ERE—, INGURUNE BAZTERTUAN DAUDEN IKASTETXE PUBLIKOETAN ETA/EDO ESKOLARI NEKEZ EGOKITZEN ZAIZKION IKASLEAK DITUZTENETAN.

Ekainaren 23ko 118/1998 Dekretuan, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei emateko hezkuntza erantzuna arautzen duenean, espresuki sartu dira gizarte- eta kultura-egoera txarrekin zerikusia duten premiak, baita eskolatzeko-aldirean batean hezkuntza-laguntza edo -arreta bereziak behar dituzten ikasleak ere, portaera-nahaste larriak dituztelako, gizartera eta eskolara egokitzeko arazo handiak dakartzatenak.

Ikasle horien premia bereziak betetzeari arian-arian ekin behar zaienez, eta premia horiek larrien agertzen diren ikastetxeekin hasteko asmoz, beherago adierazten diren ikastetxetan bete gabe dauden lanpostuak behin-behinean eta zerbitzu-eginkizunetan betetzeko deia egiten da Ebazpen honetan. Horretarako, bereziki baloratuko dira irakasleek premia horiek guztiak betetzen izan duten esperientzia eta prestakuntza.

Ondorioz, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren Egitura organikoa ezarri duen irailaren 14eko 233/2010 Dekretuaren 10. artikulua xedatutakoa kontuan izanik, honako hau

EBATZI DUT

Lehena.- Deialdi honen helburua da I. ERANSKINean aipatutako lanpostuak betetzea, zerbitzu-eginkizunetan bete ere, Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako irakasleekin.

Bigarrena.- Deialdi honetan parte hartzea izango dute dagozkien kidegoetako karrerako irakasle funtzionarioek eta praktiketako funtzionarioek.

Bitarteko irakasleek ere parte hartzeko aukera izango dute, karrerako funtzionarioek eta praktiketako funtzionarioek lehentasuna izango duten arren.

Irakaspostu bereziak betetzeko meritu-lehiaketan destinoa hartu dutenek ez dute parte hartzeko aukera deialdi honetan.

Hirugarrena.- Iragarri diren zerbitzu-eginkizunetarako izangaiek Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Langileria zuzendariari bidali beharko diote eskabidea,. Eskabide hori Hezkuntzako lurralde ordezkariarekin aurkeztu beharko dute, edo Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatuak, bere 38.4 artikuluan aurrez ikusitako edozein erregistroan. Eskabidearekin batera, eskatutako baldintzak eta alegatutako merezimenduak egiaztatzen dituen dokumentazioa (jatorrizkoa edo behar bezala konpultsatua) ere aurkeztu beharko da. **2011ko maiatzaren 6ra arte** (berau barne) aurkeztu beharko dira horiek guztiak.



Aurkez daitezke halaber, Eusko Jaurlaritzaren herritarrei arreta emateko edozein bulegotan, Zuzenean, ondoko helbide hauetan: Bizkaian, Gran Vía 85, 48011 Bilbo; Gipuzkoan: Andia 13, 20003 Donostia, eta Araban: Ramiro de Maeztu 10 behe, 01008 Vitoria-Gasteiz. Era berean, bulegotan informazio eta telefono-arreta eskatu ahal izango da zenbaki hauetan: EAE-tik: 012; EAE-tik kanpoko deiak: 945 018000, eta atzeritik: 00 34 945 018000

Laugarrena.- Langileriaren zuzendariak ebatziko ditu zerbitzu-eginkizunak, ondoko kideak izango dituen batzordearen proposamenaren arabera:

Hezkuntzako lurralde-ordezkaria, edo horrek esku emango dion pertsona
Pedagogia Berrikuntzako lurraldeburua
Langileriaren lurralde-arduraduna
Hezkuntza-ikuskari bat, lurraldeko ikuskari buruak proposatua
Langileriaren Ataleko funtzionario bat, idazkari jardungo duena

Halaber, sektorean ordezkari nahikoa duen sindikatu bakoitzeko ordezkari bat izango da batzorde horretan.

Bosgarrena.- Izangaien merezimenduak deialdi honen II. ERANSKINEan argitaratutako baremoaren arabera puntuatuko dira.

Ez da eskabidean alegatu gabeko merezimendurik balioetsiko, ezta, alegatu arren, behar bezala egiaztatu gabe dagoenik ere.

Guztizko puntuazioetan berdinketarik izanez gero, baremoaren zati bakoitzean dagoen puntuaziorik handiena hurrenez hurren aintzat hartuz konponduko da, baremo horretan daukaten ordenaren arabera.

Seigarrena. - Behin-behineko ebazpena eta erreklamazioak egiteko epea.

Barematu eta gero, Hezkuntzako lurralde-ordezkaritzetako iragarki-tauletan eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren web orrian argitaratuko da deialdiaren behin-betiko ebazpena. Bertan, onartu eta baztertutako izangaiak azalduko dira; era berean, izangaiei emandako puntuazioak azalduko dira, eta hiru laneguneko epea irekiko da erreklamazioak egiteko.

Zazpigarrena. Behin betiko ebazpena.

Aurkeztutako erreklamazioak aztertu ondoren, batzordeak Langileriaren Kudeaketa zuzendariari helaraziko dio deialdi honen ebazpen-proposamena. Horrekin batera, honako hauek ere helaraziko dizkio: behin betiko akta edo aktak, izangai bakoitzaren merezimenduei emandako balioespenak jasotzen dituen, eta hautatuen azken zerrenda.

Langileria Kudeatzeko zuzendariak hautagaiei buruzko behin betiko ebazpena emango du, eta Hezkuntzako web orrian eta lurralde-ordezkaritzetako iragarki-tauletan argitaratuko da.

Behin betiko ebazpenaren aurka gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Administrazio eta Zerbitzuen Sailburuordeari, ebazpena argitaratu eta hilabeteko epearen barruan.

Zortziagarrena. Aukeratu diren izangaiek zerbitzu-eginkizun bat jasoko dute, I ERANSKINEan aipatutako lanpostuak betetzeko 2011-12 ikasturtean.

Praktiketako funtzionarioak aukeratu ahal izateko praktika-aldia gainditu beharko dute eta karrerako funtzionario izendatuak izan, 2011-2012 ikasturtea hasi orduko.

Zerbitzu-eginkizunak ematea, betiere, plazak lekualdatze-lehiaketaren bidez ez betetzearen baldintzapean dago.



2011/2012 ikasturterako onartutako zerbitzu-eginkizun horiek hurrengo ikasturteetan luzatu ahal izango dira, beti ere, egingo den segimendu-ebaluazioaren arabera eta lekualdatze-lehiaketan bidez betetzen ez badira.

Bederatzigarrena Zerbitzu-eginkizunak esleituta dituzten pertsonak praktiketako funtzionario izendatzen badituzte, eginkizunok indargabetu egingo zaizkie. Zerbitzu-eginkizunok bakar-bakarrik mantenduko dira zerbitzu-eginkizunen lanpostuaren espezialitatea bat badator praktiken espezialitatearekin.

Hamargarrena.- Eskatzaileek emandako datu pertsonal guztiak fitxategi automatizatu batera sartuko dira deialdi hau kudeatzeko. Langileria Kudeatzeko Zuzendaritza da fitxategi horren erantzule, eta beragana jo beharko da datuok ikusi, zuzendu edo ezabatzeko nahiz aurka egiteko eskubidez baliatzeko (Donostia-San Sebastián kalea, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz).

Sinatzaileak berariaz baimena ematen du bere datu pertsonalak deialdiaren oinarrietan adierazitako moduan eta helburuaz lantzeko; era berean, deialdiaren izapideak betetzeko, baimena ematen du datuok argitara emateko Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko web orrian (www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net) eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko lurralde-ordezkaritzetako iragarki tauletan.

Hamaikagarrena.- Prozeduraren gainean Ebazpen honek arautzen ez duenari dagokionez, haxe aplikatuko da: Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legea, urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatua.

Vitoria-Gasteizen, 2011ko apirilaren 14an

LANGILERIAREN KUDEAKETA ZUZENDARIA

Juan Manuel Aramendi Arteaga

**I. ERANSKINA****Deitutako lanpostuak (2011/2012)**

Egoera ahuleko ikastetxeen deialdia

Ikastetxea	Hizk.-Esk.	Habilitazioa edo espezialitatea	Kopurua
KARRANTZA BHI	2HE	Gorputz Hezkuntza	1
MIRIVILLA LHI	1HE DDG	Maisu-maistra Lehen Hezkuntza	2
MIRIVILLA LHI	2HE	Euskera	1
VISTA ALEGRE LHI	1HE DDG	Maisu-maistra Lehen Hezkuntza	1
LOPE DE VEGA+GOYA LHI	1HE DDG	Maisu-maistra Lehen Hezkuntza	1
LOPE DE VEGA+GOYA LHI	1HE DDG	Maisu-maistra Haur Hezkuntza	1
ELEJABARRI LHI	2HE	Maisu-maistra. Haur Hezkuntza	1
CEP BELASKOENEA	2HE	Maisu-maistra. Haur Hezkuntza	1



II. ERANSKINA BAREMOA

1: Eskatzen den ikastetxean bertan lan egin izana

Ikasturte oso bakoitzeko..... 5 puntu
Ordezkapeneko hilabete edo 15 egunetik gorako aldi bakoitzeko..0,5 puntu.

2: Antzeko ezaugarriak dituzten ikastetxetan lan egin izana

Ikasturte oso bakoitzeko..... 3 puntu
Ordezkapeneko hilabete edo 15 egunetik gorako aldi bakoitzeko..0,3 puntu.

3: Prestakuntza

Ikastaroetan eta/edo prestakuntza eta hezkuntza-berriztapeneko proiektuetan parte hartu izana, gizarte mailan bazterturik dauden edo eskolara egokitzeko arazo larriak dituzten ikasleei laguntza emateari dagokionez

Prestakuntzako edo baliokidetzat hartutako ekintzako hogeita hamar ordu oso bakoitzeko.....0,30 puntu

Hezkuntza-berriztapeneko proiektuetan parte hartzen emandako ikasturte bakoitzeko.....0,30 puntu

4: Merezimendu akademikoak

Lanpostuan jarduteko eskatzen denari erantsi zaion titulu bakoitzeko
Lehen zikloko tituluak (Diplomaturak)..... puntu 1
Bigarren zikloko tituluak (Lizentziak eta baliokideak)..1,50 puntu
Hirugarren zikloko tituluak (Doktoretza).....1,50 puntu

5: Euskara jakitea, baldintza ez denean

HE1 eta baliokidetzat hartutako beste zenbait titulu.....puntu 1
HE2 eta baliokidetzat hartutako beste zenbait titulu.....2 puntu

6: Proiektua

Puntuaziorik altuena, 10 puntu, eta txikiena 5 puntu. Aipaturiko puntuazio txikiena lortzen ez dutenak, kanpoan geratuko dira.

Lan-proiektuaren abiapuntua izango da lanpostua eskatzen den ikastetxeko errealitatea eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak Hezkuntza Berriztatzeke 2007-2010 lehentasunezko lerroetako 1. ardatzean, "Denontzako eskola"n, batera bilduzko eskolaz egiten



duen planteamendua. Proiektuak esku hartzeko proposamen bat egingo du, ikastetxe hori eraldatzeko prozesuak bultzatzeko edo finkatzeko.

Ikastetxea ikas-komunitateen programa aurrera ateratzen ari denean, proiektua programa horri egokituko zaio.

Kasu guztietan, proposamenean garatu beharreko elementuek honako hauetan eragin behar dute:

- Ikasi eta irakasteko eta bizikidetzako proiektuak hobetu eta aberasten
- Curriculuma kultura-artekotasunean aberasten
- Familiakoen parte hartzean
- Hizkuntzen ikaskuntza eta euskalduntzea hobetzen.